Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

602

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 29koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Oka itsasadarraren eskuinaldean, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, Kortezubin, bidexkak berreskuratu eta bidexka berriak egiteko proiektuak –Kortezubiko Udalak bultzatua– ingurumen-inpaktuaren ebaluaziorik behar ez duela erabakitzen duena.

Kortezubiko Udalak, 2010eko uztailaren 27an, Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri zuen Oka itsasadarraren eskuinaldean, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, bidexkak berreskuratzeko eta bidexka berriak egiteko proiektua, Erreserbako bulego teknikoak egina, eta proiektuaren ingurumen-dokumentua ere jasotzen du txostenak.

Proiektuaren xedea da oinez eta bizikletan ibiltzeko bidea egitea Oka itsasadarraren eskuinaldean, Kortezubiko udalerriaren eremuan, eta Natura 2000 Europako Sare Ekologikoan sartuta dauden eremu hauetan eragiten du: «Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak» (ES2130007) eta «Urdaibaiko Ibai Sarea» (ES2130006), biak ere Europar Batasunaren Intereseko Leku (EBIL), eta «Urdaibaiko itsasadarra» (ES0000114), Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE).

Proiektua ez dago zuzenean lotuta aipatutako Natura 2000 lekuen kudeaketarekin, eta ez da beharrezkoa horretarako.

Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, arau horretako I. eranskinean ez dauden proiektuek Natura 2000 Sareko espazioei zuzenean edo zeharka eragin badiezaiekete, ingurumenean duten eragina ebaluatuko da, baldin eta ingurumen-organoak hori zehazten badu kasu bakoitzean, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuko III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera, eta proiektuaren ondorioak jasan dituzten administrazioei, pertsonei eta erakundeei kontsultatu ondoren.

Hala, 2010eko abuztuaren 27an, ingurumen-organoak galdera egin zien proiektuaren aldaketak eragiten dien administrazio eta erakundeei, jarduketa horiek ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduraren pean jarri behar ote ziren, eta, hala balitz,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

602

RESOLUCIÓN de 29 de noviembre de 2010, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se adopta la decisión de no someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el proyecto de recuperación de sendas y creación de nuevos senderos en la margen derecha de la ría del Oka, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, en Kortezubi, promovido por el Ayuntamiento de Kortezubi.

Resultando que con fecha 27 de julio de 2010, el Ayuntamiento de Kortezubi remitió a esta Viceconsejería de Medio Ambiente el proyecto de recuperación de sendas y creación de nuevos senderos en la margen derecha de la ría del Oka, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, elaborado por la oficina técnica de la Reserva, que incluye un documento ambiental del citado proyecto.

Resultando que el proyecto tiene por objeto la construcción de un itinerario peatonal y ciclable por la margen derecha de la ría del Oka, a su paso por el municipio de Kortezubi, incidiendo sobre los siguientes espacios que integran la Red Ecológica Europea Natura 2000: Lugares de Importancia Comunitaria (LICs) «Zonas litorales y marismas de Urdaibai (ES2130007) y «Red Fluvial de Urdaibai» (ES2130006) y la Zona de Especial Conservación para las Aves (ZEPA) «Ría de Urdaibai» (ES0000114).

Resultando que el proyecto no tiene relación directa con la gestión de los lugares Natura 2000 citados, ni resulta necesario para la misma.

Resultando que, de conformidad con el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental, los proyectos no incluidos en el anejo I de la citada norma que puedan afectar directa o indirectamente a los espacios de la Red Natura 2000, estarán sometidos a evaluación de impacto ambiental cuando así lo determine el órgano ambiental en cada caso, de acuerdo con los criterios establecidos en el anejo III del citado Real Decreto Legislativo, y previa consulta a las administraciones, personas e instituciones afectadas por la realización del proyecto.

Resultando que con fecha 27 de agosto de 2010 el órgano ambiental procedió a consultar a las administraciones e instituciones afectadas por el proyecto sobre la necesidad de someter dichas actuaciones al procedimiento de evaluación de impacto ambiental,

ingurumen-inpaktuaren ikerketak zein eduki eta gutxieneko irismen izan beharko lituzkeen, betiere Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta horren berri eman zion Kortezubiko Udalari.

Erantzun dute Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Zuzendariordetzak, Kultur Ondarearen Zuzendaritzak eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak –guztiak ere Eusko Jaurlaritzakoak–, bai eta Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusiak ere.

Osasun Saileko Bizkaiko Lurralde Zuzendariordetzaren iritziz, osasunaren aldetik ez da aurreikusten inpaktu garrantzitsurik, proiektuaren inpaktua ebaluatu beharra eragiteko adinakorik.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eragin-eremuaren barruan Barrutibaso baserria dagoela, eta legez babesteko proposamena duenez Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko Legeak ezarritako mekanismoen arabera, baserri horretatik 15 metroko gutxieneko tartea uzteko gomendatzen du, tarte horretan eraikin berriak egiteko instalaziorik eta hesirik jarri gabe.

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak gomendatu du, proiektuak EAEko Basogintza antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean (gaur egun hasierako onespenaren fasean) sartuta dauden eremuetan eraginik ez badu ere, proiektuak nekazaritza-lurretan eta nekazaritza-ustiategietan duen eragina baloratzeko eta neurri zuzentzaile egokiak proposatzeko.

Euskal Herriko Itsasertz Mugarteak adierazi du Kostaldeei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legeak araututako esparruan aurreikusitako jarduketak bat datozela legedi horrekin.

Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi eta Natur Guneen Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du, beste gai batzuen artean, bere eskumenekoak diren arau hauek aplikatzekoak direla: urriaren 14ko 11/1997 Foru Araua –bertako hainbat baso-espezieren araubide berezia ezartzen duena– eta ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua –*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) bisoi europarra Kudeatzeko Plana onartzen duena–.

Eskuragarri dagoen informazioa aztertu da proiektuak ingurumenean izan dezakeen eragina kalkulatzeko, Proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren

y en su caso, respecto al contenido y alcance mínimo que debiera contemplar el estudio de impacto ambiental, de acuerdo con lo previsto en el artículo 17.2 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, comunicando al mismo tiempo tal circunstancia al Ayuntamiento de Kortezubi.

Resultando que se ha recibido respuesta de la Subdirección Territorial de Salud de Bizkaia, de la Dirección de Patrimonio Cultural y de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, todas ellas del Gobierno Vasco, de la Demarcación de Costas del País Vasco, y de la Dirección General de Montes y Espacios Naturales de la Diputación Foral de Bizkaia.

Considerando que la Subdirección Territorial de Bizkaia del Departamento de Sanidad ha estimado que no se prevén desde el punto de vista sanitario impactos significativos que hicieran necesario una evaluación de impacto del proyecto.

Considerando que la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco ha informado que dentro del ámbito de afección del proyecto se localiza el caserío Barrutibaso, que cuenta con propuesta para ser protegido legalmente a través de los mecanismos que prevé la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cultural Vasco, recomendando que se respete un retiro mínimo de 15 m a dicho caserío, sin construcciones ni instalaciones ni vallados adscritos a edificación de nueva construcción.

Considerando que la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral del Gobierno Vasco recomienda que, aún no incidiendo el proyecto sobre espacios incluidos en el ámbito del Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV (actualmente en fase de aprobación inicial), se realice una valoración de la afección sobre suelos agrarios y sobre las explotaciones agrarias ocasionada por el proyecto, y proponer las medidas correctoras pertinentes.

Considerando que la Demarcación de Costas del País Vasco ha informado que las actuaciones previstas en el ámbito regulado por la Ley 22/1988, de 28 de julio, de Costas resultan compatibles con dicha legislación.

Considerando que la Dirección General de Montes y Espacios Naturales de la Diputación Foral de Bizkaia ha informado, entre otras cuestiones, de las siguientes normas de su competencia que resultan de aplicación: Norma Foral 11/1997, de 14 de octubre, de Régimen Específico de Diversas Especies Forestales Autóctonas y Decreto Foral 118/2006, de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del visón europeo *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761).

Considerando que se ha realizado un análisis de la información disponible para estimar los efectos que el proyecto puede causar sobre el medio ambiente, según los criterios del anexo III del Real Decre-

11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideen arabera, eta honako hau izan da emaitza:

Proiektuaren ezaugarriak.

Proiektuaren xedea da oinez eta bizikletan ibiltzeko bidea egitea Oka itsasadarraren eskuinaldean, Kortezubiko udalerriaren eremuan. Bidea 1.300 metro luze da, eta 1,5-2 metro zabal. Barrutia auzotik Enderikara doa, eta zatirik handiena gaur egun erabiltzen ez diren antzinako bidexkek osatzen dute.

Lehendik ere baziren bide asfaltatuekin lotura egiteko zatietan izan ezik, gainerakoetan, lurra perfilatuko da eta zabalgunea finkatuko da (azpiko oinarria jarriko zaio, landugabeko harrizkoa, eta oinarria ere bai, dena bat egindakoa, han inguruko harri basaltiko berdexkakoa). Zoruaren akabera egiteko, oinarria egiteko erabilitako harri beraren txintxarrezko geruza fin bat botako zaio gainetik. Horrez gain, bide-ertzetan lur begetala botatzea aurreikusten du proiektuak. Egurrezko langara bidez bilduko da ura.

Proiektua gauzatzeko lur gutxi mugitu behar da: hondeaketaren bolumen osoa 1.245 m^3 dira. Material horren zati bat obran erabiliko da berriz, eta, gainerakoa baimendutako hondakindegi batera eramango da.

Proiektuaren barruan sartzen dira espezie inbaditzaileak desagerraraztea Barrutia errekan, eta ibaiertzeko espezie autoktonoak landatzea erreka inguruko jardun-eremuan. Horrez gain, aurreikusten da Barrutiako hariztia balioestea eta kontserbatzea, informazio- eta dibulgazio-taulak jartzea eta ondare-elementuak berreskuratzea, Barrutiako garbitegia kasu.

Bide honen erabilera kontrolatu egingo da, ibilgailu motordunei bidexketarako sarrera eragozteko baliza edo mugarriak jarrita.

Obrak egiteko epea 2 hilabetekoa da.

Proiektuak ingurumen-dokumentu bat du, obrak egiteko hartu beharreko neurri zuzentzaileak ezartzen dituena, bai eta ingurumena zaintzeko programaren edukia ere. Proiektuaren aurrekontuan jasota daude Barrutiaren erreka-bazterrak berreskuratzeko neurriak gauzatzeko aurrekontu-partidak, Barrutiako hariztia balioesteko eta berreskuratzekoak eta ingurumena zaintzeko programa gauzatzekoak.

Proiektuaren kokapena.

Proiektua Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren barruan dago, araubide juridiko berezia duen gunean (uztailaren 6ko 5/1989 Legea, Urdaibaiko Biosferaren

to Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, con el resultado siguiente:

Características del proyecto.

El proyecto tiene por objeto la construcción de un itinerario peatonal y ciclable por la margen derecha de la ría del Oka, a su paso por el municipio de Kortezubi. El recorrido del camino es de 1.300 m y anchura comprendida entre 1,5 y 2 m. Se localiza entre los barrios de Barrutia y Enderika, apoyándose en la mayor parte de su recorrido en antiguos senderos, que en estos momentos se encuentran en desuso.

Excepto en los tramos de conexión con caminos asfaltados existentes, las actuaciones a realizar consisten en perfilado del terreno, consolidación de la explanada, sub-base compuesta por piedra en rama y una base de todo-uno de piedra basáltica de tonos verduzcos procedente de la zona. El acabado del firme se resolverá mediante el vertido de una fina capa de guijillo de la misma piedra que la empleada para la base. El proyecto contempla asimismo el extendido de tierra vegetal en las márgenes del camino. La recogida de aguas se resuelve mediante traviesas de madera.

Los movimientos de tierras derivados de la ejecución del proyecto son escasos. El volumen total de excavación se cuantifica en 1.245 m^3. Parte de este material será reutilizado en obra y el resto será llevado a vertedero autorizado.

El proyecto incluye la erradicación de especies invasoras en el Arroyo de Barrutia y la plantación de especies autóctonas de ribera en el entorno de la zona de actuación próxima al arroyo. También se considera la puesta en valor y conservación del robledal de Barrutia, la colocación de paneles informativos y divulgativos y la recuperación de elementos patrimoniales como el lavadero de Barrutia.

Se controlará el uso de este camino mediante la colocación de balizas o mojones que eviten el acceso a los senderos de vehículos a motor.

El plazo estimado para la ejecución de la obra es de 2 meses.

El proyecto incluye un documento ambiental en el que se especifican las medidas correctoras a adoptar para la ejecución de las obras, así como el contenido del programa de vigilancia ambiental. El presupuesto del proyecto recoge las partidas presupuestarias para la ejecución de las medidas de recuperación de los márgenes del arroyo Barrutia, la puesta en valor y recuperación del robledal de Barrutia y ejecución del programa de vigilancia ambiental.

Ubicación del proyecto.

El proyecto se ubica dentro de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, espacio que cuenta con un régimen jurídico especial (Ley 5/1989, de 6 de julio, de

erreserba babestu eta antolatzeari buruzkoa, urriaren 31ko 15/1997 Legeak aldatua, eta Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzailea (EKPZ), 1993ko abuztuaren 3an onartua eta otsailaren 11ko 27/2003 Dekretuaren bidez aldatua).

Proiektuaren ingurumen-arloko dokumentuak –Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren Bulego Teknikoak egina– ondorioztatzen du aurreikusitako obrek betetzen dutela Erreserba Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzaileak eremu horietarako ezarritakoa, A2 eta A3 Nekazaritza Intereseko Guneetan; Itsasertza babesteko gune, erreka-bazter eta natura-interes handiko guneetan (P4), eta Itsasertzaren Eremuan (P1).

Halaber, proiektuan jasotako jarduketen zati bat Europar Batasunaren Intereseko Lekuetan (EBIL) garatzeko da (ES2130006 –Urdaibaiko Ibai Sarea– eta ES2130007 –Urdaibaiko Itsasertzak eta Padurak–), eta Urdaibaiko Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuan (HBBE) ere bai (ES0000144 –Urdaibaiko itsasadarra–); guztiak ere Natura 2000 Sareko parte. Nolanahi ere, eremu horietan eragin txikia du proiektuak, bidexka zaharrak baliatuko dira eta.

Bestalde, Bisoi europarra Kudeatzeko Plana, 118/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua, Bizkaiko Lurralde Historiko osoan aplikatzekoa da, eta interes bereziko eremutzat jotzen ditu Okaren ibai-tarteak. Nolanahi ere, Urdaibai Biosferaren Erreserbako bulego teknikoak egindako proiektuan –Bisoi europarrarentzako (*Mustela lutreola*) puntu beltzak Urdaibaiko Biosferaren Erreserban. Diagnostikoa, problematika eta neurri zuzentzaileak», ez da jasotzen jardun-eremuan bisoi europarra dagoenik. Hala eta guztiz ere, aurreikusitako lanek ez dute aldatuko bisoi europarraren habitata.

Proiektuak izan lezakeen eraginaren ezaugarriak.

Proiektuak eragindako inpaktuak obren fasera mugatzen dira. Fase horretan, ingurunean hainbat inpaktu gertatuko direla aurreikus liteke; adibidez, solidoen kontzentrazio handiagoa ibai-ibilguetan eta, beraz, fauna-komunitateei eragitea, zarata egitea, hautsa harrotzea eta higadura-prozesuak eragitea.

Aurkitutako inpaktuak txikiak dira eta aldi batekoak, batez ere bidea profilatzeko egin beharreko lurmugimenduari lotutakoak dira eta. Lur-mugimendu gutxi egin behar dira (hondeaketaren bolumen osoa 1.245 m^3 da), bidearen zati handi bat lehendik zeuden bidexkek osatzen dute eta.

Proiektuak Barrutia errekaren eta Mundaka itsasadarraren bazterretan dauden ibaiertzeko hostozabalei eta landaretza autoktonoari ez eragitea lortzen du, espezie aloktonoak desagerraraziz eta haltzak eta ibai-

protección y ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, modificada por la Ley 15/1997, de 31 de octubre y Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva de la Biosfera (PRUG) de Urdaibai, aprobado con fecha de 3 de agosto de 1993 y modificado por Decreto 27/2003, de 11 de febrero).

El documento ambiental del proyecto, elaborado por la Oficina Técnica de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai concluye que las obras contempladas, en terrenos calificados como Áreas de Interés Agrario A2 y A3, Zonas de Protección del Litoral, márgenes de arroyos y alto interés naturalístico (P4) y Área de la Ría (P1), se adaptan a lo establecido por el Plan Rector de Uso y Gestión de la Reserva para estas áreas.

Asimismo, una parte de las actuaciones definidas en el proyecto se realiza en Lugares de Importancia Comunitaria LICs ES2130006- Red fluvial de Urdaibai– y ES2130007 –Zonas litorales y marismas de Urdaibai–, y en Zonas de Especial Protección para las Aves ZEPA ES0000144 –Ría de Urdaibai–, todas ellas de la Red Natura 2000. No obstante, las afecciones sobre estos espacios son reducidas por desarrollarse sobre antiguos senderos.

Por otra parte, el Plan de Gestión del visón europeo aprobado por Decreto Foral 118/2006, es de aplicación en todo el Territorio Histórico de Bizkaia, considerando áreas de interés especial los tramos fluviales del Oka. Sin embargo, según se señala en el proyecto elaborado por la oficina técnica de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, el « Estudio y caracterización de puntos negros para el visón europeo (*Mustela lutreola*) en la Reserva de la biosfera de Urdaibai. Diagnóstico, problemática y medidas correctoras», no refleja la presencia de visón europeo en la zona de actuación. En cualquier caso, las actuaciones previstas no prevén la modificación del hábitat del visón europeo.

Características del potencial impacto.

Los impactos inducidos por el proyecto se restringen a la fase de obras. En ésta, es previsible que se produzcan una serie de impactos sobre el entorno tales como incremento en la concentración de sólidos de los cauces fluviales y, consecuentemente, afección a las comunidades faunísticas, generación de ruido, emisión de polvo, y desencadenamiento de procesos erosivos.

La magnitud de los impactos detectados es reducida y de carácter temporal, asociándose fundamentalmente a los movimientos de tierras necesarios para el perfilado de la senda. Estos movimientos de tierras son escasos (el volumen total de excavación se cuantifica en 1.245 m^3) al desarrollarse gran parte del trazado del sendero sobre caminos preexistentes.

El proyecto evita afectar a las frondosas y vegetación de ribera autóctona localizadas en las márgenes del arroyo de Barrutia y de la ría de Mundaka, incluyendo la erradicación de especies alóctonas y la re-

ertzeko basoetako beste espezie batzuk birlandatuz. Bidea Barrutia errekarekin gurutzatzen den tokian, egitura hegalkinak egingo dira, ibilguari ahalik eta gutxien eragiteko.

Bai obren faserako ezarritako neurri zuzentzaileek bai eta ingurumena zaintzeko programan jasota dagoen jardueren jarraipen eta kontrolak murriztu egiten dute inpaktu globala, eta, horrenbestez, ez da aurreikusten kalte nabarmenik gertatuko denik Natura Sarea 2000n.

Behin aztertuta proiektu honen ezaugarriak, Ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskineko irizpideak, eta kontsultetan jasotako erantzunak, proiektuak ez du ingurumenean eragin txar nabarmenik izango, betiere, sustatzaileak adierazitako neurri babesleak eta zuzentzaileak eta ebazpen honetan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

Organo honek ebazpen hau idazteko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Aztertu dira Ingurumena babesteko EAEko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, eta horrenbestez, honakoa

EBATZI DUT:

1.– Oka itsasadarraren eskuinaldean, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban, Kortezubin, bidexkak berreskuratu eta bidexka berriak egiteko proiektuak –Kortezubiko Udalak bultzatua– ez du behar ingurumenean duen inpaktuaren ebaluaziorik, baina proiektua gauzatzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

– Proiektuan eta ingurumen-dokumentuan sartutako babes-neurri eta neurri zuzentzaile guztiak aplikatuko dira.

– Hala badagokio, neurri horiez gain, eskumena duen foru-organoak ezarritako neurriak beteko dira, betiere honakoak aplikatuz: urriaren 14ko 11/1997 Foru Araua –bertako hainbat baso-espezieren araubide berezia ezartzen duena– eta ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua –*Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761) bisoi europarra Kudeatzeko Plana onartzen duena–.

– Kalterik egin gabe Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutakoari,

plantación de alisos y otras especies propias del bosque de ribera. En el punto de cruce del camino con el arroyo Barrutia se ejecutarán estructuras en voladizo, al objeto de minimizar la afección al cauce.

El conjunto de medidas correctoras previstas para la fase de obras así como el seguimiento y control de las actuaciones incluidas en el programa de vigilancia ambiental propuestos por el promotor reducen el nivel de impacto global, de manera que no es previsible que se generen afecciones significativas sobre la Red Natura 2000.

Considerando que a la vista de las características del proyecto de referencia, de los criterios del anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental y de las respuestas recibidas en el trámite de consultas, se ha concluido que el proyecto no tendrá efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras indicadas por el promotor y las condiciones que se establecen en la presente Resolución.

Considerando la competencia de este Órgano para el dictado de la presente Resolución, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Vistos la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,

RESUELVO:

1.– No someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el proyecto de recuperación de sendas y creación de nuevos senderos en la margen derecha de la ría del Oka, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, en Kortezubi, promovido por el Ayuntamiento de Kortezubi, condicionando la ejecución del proyecto al cumplimiento de las condiciones siguientes:

– Serán de aplicación el conjunto de medidas protectoras y correctoras incluidas en el proyecto y en el documento ambiental que lo integra.

– Se añadirán las medidas que, en su caso, establezca el órgano foral competente en aplicación de la Norma Foral 11/1997, de 14 de octubre, de Régimen Específico de Diversas Especies Forestales Autóctonas y del Decreto Foral 118/2006, de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del visón europeo *Mustela lutreola* (Linnaeus, 1761).

– Sin perjuicio del cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, de Patrimonio Cul-

kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak bere txostenean (espedienteari erantsia 2010eko irailaren 22an) ezarritako neurriak, Barrutibaso baserriari kalterik ez eragite aldera; izan ere, ondasun higiezin hori legez babesteko proposamena egina dago, uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako mekanismoen bidez babesteko, hain zuzen.

– Jarduera gauzatzerakoan sortutako hondakinak kudeatzeko, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea eta berariazko araudietan xedatutakoa beteko da.

Hondakinak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak badira, hondakinen balorizatzaile baimendu bati eraman behar zaizkio.

Hondakinak deuseztatzera bidali ahal izango dira, soilik baldin eta aldez aurretik horiek balorizatzea teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenaren aldetik bideraezina dela frogatzen bada.

Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betegarriak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat etorriz.

2.– Ebazpen honen edukia Kortezubiko Udalari eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatuari jakinaraztea.

3.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

4.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Horrela ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. artikuluan eta ondorengoetan; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 29a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

tural Vasco, se tendrá en cuenta lo establecido por la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco en su informe incorporado al expediente n fecha 22 de septiembre de 2010, en cuanto a las medidas para evitar afecciones al caserío Barrutibaso, bien inmueble que cuenta con propuesta para ser protegido legalmente a través de los mecanismos que prevé la citada Ley 7/1990, de 3 de julio.

– Los diferentes residuos generados durante la actuación se gestionarán de acuerdo con lo previsto en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos y normativas específicas.

Todos los residuos cuya valorización resulte técnica y económicamente viable deberán ser remitidos a valorizador de residuos debidamente autorizado.

Los residuos únicamente podrán destinarse a eliminación si previamente queda debidamente justificado que su valorización no resulta técnica, económica o ambientalmente viable.

Los residuos con destino a vertedero se gestionarán de acuerdo con el Real Decreto 1481/2001, de 27 de diciembre, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y con el Decreto 49/2009, de 24 de febrero, por el que se regula la eliminación de residuos mediante depósito en vertedero y la ejecución de los rellenos. Dichos residuos deberán de ser caracterizados conforme a la Decisión 2003/33/CE del Consejo, de 19 de diciembre de 2002, por la que se establecen los criterios y procedimientos de admisión de residuos en los vertederos con arreglo al artículo 16 y al anexo II de la Directiva 1999/31/CEE.

2.– Comunicar el contenido de la presente Resolución al Ayuntamiento de Kortezubi y al Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

3.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Excma. Sra. Consejera de Medio Ambiente Planificación Territorial, Agricultura y Pesca en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de noviembre de 2010.

La Viceconsejera de Medio Ambiente,
NIEVES TERÁN VERGARA.